

Ze barri?

2000
MARTXOA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

38. zkia.

Urlatik Landetara

Elkarrizketa

Unai Iñurrategi pelotari profesionala

Erreportaia:

Mundukideko bekadunak gure artean

Eskoriatzarrok
munduan:

Maidier Nafarrate ertamerikan



**Hegoamerikarrak
hilabetez gure artean**



Udalaitz, S.L.

carpinteria
leniz

AROSZTEGIA

Tfnoa. 943 71 49 36

**ANGEL
 Aseguroak**


Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943 715203

ESKORIATZA



**ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA
 ALUMINIOA-EGURRA
 PERTSIANAK ETA OSAGAIK**



Araba Ibilbidea, 17
 Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
 E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34

ARGITARATZAILEA:
AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Imanol Garmendia
Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano

KOLABORATZAILEAK:
Aiitor Urrutia
Aitor Uribe Etxebarria
Iñaki Agiriano
J.J. Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez

PUBLIZITATEA:
Oier Garai

Miren Lezeta
INPRIMATEGIA:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:
2.000 ale

LEGE GORDAILUA:
SS - 200/99

ISSN:
1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



ESKORIATZA



GATZAGA



Gipuzkoako Foru
Aldundiaren
Laguntzaz

Eskoriatza eta Gatzagako
Udalek diruz lagunduta

SANS PAPIERS.



**Herralde pobre batetik
datozenentzat horma
pasaezinak eraikitzen
ditugu, paperik gabe
uzten ditugu, ""sans
papiers ""Iraul-tza
frantziarraren garaian
barruko arropak
eramateko ere ez
zutenak "" sans culottes""
deitzen zitzaien modu
beretsuan.**

Atzo irribarrez esnatu nintzen. Ha ze sortea daukadan! Paperak dauzkat eta edonora joan naiteke. Geroxeago zehaztu zen pentsamendu honek sortutako sentsazio gozo bat. Ondoren, konortearen mundura heltzean, neure buruari barrezka aritu nintzaion. Bai esnatzeko era bitxia!

Baina ez da hain bitxia. Gure buruetan ibiltzen den ia ezer ez da kasualitatea. Nirean, El Ejidoko gertaeren ostean, hausnarketa gazietako hondakinak geldituko ziren. Hainbeste gajoren zorte faltaren

aurreko nire ezinaren islada. Gaur ulertu dut. Gurpil bati ebatuta, mila kilometro egin eta gero, bere bitzta arriskuan ipini duen magrebiar hori bidalia izango dela ikaraz irakurri dudanean. Ez dakit nahikoa kontsolu den bitztea kontatu ahal izateko. Inoiz ez dakit pate-rauntzi-etako kideek hildako bere adiskideagatik, edo itxaropenik gabe bizitzen jarraitu behar izateagatik egiten duten negar. Harrigarriak gara lehen mundu honetan. Gure sistemaren abantailetaz hitzegiten ahoa berotzen zaigu, edozein hiritar irits omen daiteke Presidente izatera, eta era berean, herralde pobre batetik datozenentzat horma pasaezinak eraikitzen ditugu, paperik gabe uzten ditugu, ""sans papiers ""Iraul-tza frantziarraren garaian barruko arropak eramateko ere ez zutenak ""sans culottes"" deitzen zitzaien modu beretsuan.

Ez dut irudikatzerik nahi zer pasako litzatekeen mugak irekiko balira, edonor edonon bizi ahal izango balitz. Nahiago dut beste galdera bat egin: Zer sentituko genuke "paper jabeok" patuak pobre jai izatera ez ezik, egoera horretatik irteteko ezer egin ahal ez izatera zigortu bagintu? Gogorra,ez? Miseriaren aurrean gizakiari gelditzen zaion bakarra bertatik irten ahal izatea baita. Hau, dagoeneko, jakin behar luke emigratio masiboko iragan hurbil bat izan duen herralde batek. Duintasunaren aldeko borroka, berak berez duintzen duela jakin behar du. Eta ezer gabe, zer gal daiteke? "Paper gabeak, egunen batean, altxatzen badira eta gordinik jaten bagaituzte ezingo dugu esan merezia ez dugunik.

Aitor Urrutia

LABURREAN

Ikastolak talogintza ikastaroa antolatu du

Jose Arana Almen ikastolak taloak egiten ikasi nahi duten herritar guzti-entzat talogintza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa bi egunetan emango da, apirilaren 4 eta 5ean (arratsaldeko 6etatik 7'30etara). Taloak egiten ikasi nahi dutenek gastuetarako, 600 pezeta ordaindu beharko dute eta, inskripzioa zuzenean Ikastolan egin dezakete edo bestela, 943 714486 telefonora ere deitu dezakete. Ikasto-lako arduradunek interesa duten he-rritar guztiak animatu nahi dituzte, ikastaroan ikasitakoari esker, maia-tzean egingo den urteroko Artisau Ferixan, taloak egiten lagundu dezaketelako.

IV. Insumiso Eguna, aparta

Aurten Eskoriatzako insumiso egunak oihartzuna izan du inguruko herrietan eta esan kanpotik beste urtetan baino jende gehiago etorri dela. Arrakasta honen meritua, nola ez, urtero jai hau antolatzen duten Insumiso taldeak eta aurten hauei lagundu dien Gazte Asanbladakoak dute. Insumiso bazkarian, urteroko babajanez, ehun lagun egon ziren. Zarauzko bertsolariek bertso saio dotorea egin zuten bazkal ostean. Eta ondoren, EGASekoek parodia bat egin zuten; nahikoa inprobisatua egon arren, grazioso egon ziren parodiako pikolo, insumiso eta gurasoak. Aurten bi talde soilik egon dira tabernetan jotzen, baina, eurak ere nahikoa izan ziren jendea astoratzeko. Gauean, berriz, Txatunga Bemberen dantbor hotsek dantzan jarri zuen jende guztia eta hoprela jai giroak goizeko ordu txikiak arte jarraitu zuen askorentzat.

Begirale deialdia

Urtero bezela Eskoriatzako Udalak udaleku irekietarako begirale deialdia luzatu du. Begirale izateko 6 urtetik gora eduki eta euskeraz hitzegin eta idazten jakin behar da.

Kurrikulumak bidali Apirilaren 7a baino lehenago Kultur Etxera.

Ihauteriak argazkitan



Mozorro koloretsuak irrifarrea espainetan, algarra, umore ona eta juergarako gogoa nagusi ihaterietan.

Plaza jendez lepo egon arren, pena izan da ihauteri dantzarik ez egitea. Eta... zergatik gelditu zen Maku erre barik?



Argazi honetan, sheriffa eta laguntzailea nekazarien artean ordena jartzen. Sartu ote zuten inor udaletxeko kartzela zaharrean?

Elkarteen arteko mus txapelketa

Badira 8 urte eskoriatzako lau elkarten artean mus txapelketa ospatzen dutena.

Aurten arte elkarte bakoitzetik bina bikotek hartzen zuen parte. Orain aldiz aldaketa batzuk eman dira eta elkarte bakoitzetik 4 bikotek hartu du parte. Guztira 32 pertsona aritu dira jokoa.

Honetaz gain beste aldaketarik ere egin da. Adibidez, festibal erara antolatu da txapelketa, trikitilari, afari eta guzti. Afarian 40 bat lagun bildu ziren.

Parte hartzen duten elkarteak ondoko hauek dira:

Dorleta, Egokiena, Elizoste eta Apotzagako Auzo-Etxe.

Kanporaketetako bikoteak aukeratzeko zozketa era erabiltzen da. Aurten kanporaketak modu honetan geratu dira:

Apotz-Etxe - Egokiena
Dorleta - Elizoste

Irabazlea Egokiena elkarteko Marin- Regaño bikotea izan zen.

Sariak:

- 1.- Txapela, kopa eta 25.000 pzta
- 2.- Trofeoa eta ardo berezi batzuk

Normalean betik bikote berdinak etortzen dira txapelketa honetara. Bikoteak elkarteren bateko bazkide izan behar dute derrigorrez eta honek ere baldintzatzen du partaidetza.

Txapelketa ospatzen den soziedade urtez urte aldatzen joaten da eta datorren urtean Egokienan ospatuko da.

Aurten txapela Egokiena elkartera joan da. Bikote irabazlea, Marin-Regaño, da argazkian duguna



AUZOETXEA - EGOKIENA	DORLETA - ELIZOSTE
1.- Julian / Jose Luis	9.- Goio / Joseba
2.- Antonio Errarte / Agiriano	10.- Bengoa / Bengoa
3.- Jose Luis / Sabino	11.- Paco / Olazabal
4.- Marin / Regaño	12.- Gaztelu / Zugasti
5.- Alejandro / Miguel	13.- Jesus Mª Eraña / Mikel
6.- Marcos / Santi	14.- Rafa / Javier
7.- Javier / Jose	15.- Letona / Errarte
8.- Caparrosa / Perea	16.- Uribetxeberria / Arrate

Final Laurdenak

AUZOETXEA - EGOKIENA	DORLETA - ELIZOSTE
1.- Julian / Jose Luis	10.- Bengoa / Bengoa
4.- Marin / Regaño	12.- Gaztelu / Zugasti
5.- Alejandro / Miguel	14.- Rafa / Javier
8.- Caparrosa / Perea	15.- Letona / Errarte

Final Erdiak

AUZOETXEA - EGOKIENA	DORLETA - ELIZOSTE
4.- Marin / Regaño	12.- Gaztelu / Zugasti
8.- Caparrosa / Perea	15.- Letona / Errarte

Finala

AUZOETXEA - EGOKIENA	DORLETA - ELIZOSTE
4.- Marin / Regaño	15.- Letona / Errarte

KURTZEBARRI BHIIn EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN

Kurtzebarri BHIIn 62 eskoriatzar ari dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak burutzen, guztira 172 ikasle dira proiektu horretan murgilduta daudenak.

Aurtengo ikasturtean Aretxabale-tako Kurtzebarri bigarren hezkuntzako institutuan ikasle batzorde bat eratzeko proposatu eta ikasleek ondo baino hobeto erantzun dute. Ikasle askok eman du izena batzorde horren partaide izateko, eta ikasle horietatik hainbat ordezkari izendatu dira lehendik eratu dagoen irakasle batzordearekin koordinatzeko. Jolastorduan biltzen da ikasle batzordea, eta ordezkariak han jasotako kezak, arazoak, proposamenak edo hartutako erabakien berri ematen diote irakasle batzordeko ordezkariari.

Ondoren, irakasle batzordean aztertzen dira eta, ahal den neurrian, bitartekoak eta baliabideak jartzen dituzte, ikasleen proposamenak aurrera ateratzeko, beti ere kontuan izanik ikasleak direla protagonista.

Batzordeko kideek ilusioz eta gogoz ekin diote lanari. Ikastetxearen proiektuan egiten diren ekintzetan parte hartzeko konpromisoa hartzeaz gain, noizean behingo ekintzetan iritziak eta ideiak ematen dituzte, hala nola, eskolan ospatzen den giza baloreen astean egin zuten dirubilketaz hirugar-

ren munduko herri bati laguntza bidaltzearena, edo HIESaren egunean lazo gorriak prestatzen eta banatzen aritzea. Hortik aparte, ikasleek proiektu berriak dituzte eskuartean, esate baterako jolastorduan entzuteko irriti saioak prestatzea, berriraper bat hilean behin... eta horiek guztiak euskaraz sortu eta garatuko dira.

Kurtzebarri BHIk euskararen erabilera erreferentzia izatea nahi du bai eskolan sartzen diren ikasleentzat bai irtetzen direnentzat ere, hori baita bere helburu nagusia.

Horregatik, orain dela lau urte, Eusko Jaurlaritzak egindako deialdi batean, hau da, Hiizkuntza Normalizatzeko Programan, parte hartzeko konpromisoa hartu zuen Eskolak.


Gerora begira, euskararen erabileraren konpromisoa gizartera zabaldu nahi du Kurtzebarri BHIk. Horretarako, herrian sortzen diren kultura ekintzetan parte hartzen du, adibidez, Loramendi euskara elkarteak antolatutako literatura lehiaketan, ihauterietako jaietan, antzerki emanaldietan, edo aisialdi ekintzetan

Ion, Andoni eta Amaiaren hitzetan, "Ikasleen artean batasuna lortzeko, eskolako giroa hobetzeko eta ondo pasatzeko erabaki dugu ikasle batzordean parte hartzea



Ludoteka laister martxan

Apirilaren lehenengo hamabostaldian jarriko da martxan Eskoriatzako **TORTOLIS** Ludoteka. Axtroki Elkarteak zabalduko du haurren aisialdirako zentru honek eta Eskoriatzako Udalaren eta Txatxilipurdiren laguntza jaso du.



Ludotekara, 3-12 urte bitarteko haurrek joan ahal izango dute jolastera. Izen emateko orriak ikastetxeetan banatuko dira eta Ludotekan entregatu beharko dira.

Lehenengo astean ikastetxeentzat bakarrik egongo da zabalik, baina bigarren astetik aurrera denontzat zabalik egongo da.

Ludotekaren ordutegia ondorengo hau izango da:

Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5etatik 8etara.

Gorosarri plazan izango du lokala ludotekak.. Nahiz eta obrak oraindik amaitu ez, badirudi amaitzeaz daudela eta ondorengo egunetan egingo dela Tortolis ludotekaren inagurazio festa.

MIRENTXU
TABERNA

Tfnoa.: 943 714167

Kafe goxoa hartzeko

TOKI ALAI
Taberna

Tfnoa.: 943 714729

KARAJILOETAN ESPE-
ZIALIZATUA

GOLO
gazte moda

Tel.. 943 71 45 61

VILLAR
APAINDEGIA

Tfnoa.: 943 715042

Unai Inurrategi.



Profesionaletara iritxiz zenuen amets haundi hau betetzea lortu duzu, orain ze beste amets betetzea gustatuko litzaizuke?

Txapelketarenbaten sarirenbat eskuratzea, baina, profesionaletan ondo ibiltzarekin konformatzen naiz.

Eta hori lortzeko zertan hobetu beharko zenuke?

Gauza askotan, uste dot! maila honetako pilotariekin jokatzeko, ezkerria hobetu beharko nuke eta baita forma fisikoa ere.

Hemendik aurrera gehiago zaindu beharko duzu, orduan?

Bai, orain Aspeko entrenatzaile fisikoarekin ari naiz lanean. Astean lau egunetan forma fisikoa lantzen dut korrikaldi batzuk eginez eta gimnasioko ariketekin. Eta pilotan, berriz, Eibarren aritzen gara normalean.

Sorpresa izan da ala espero zenuen?

Bai, dudan adinarekin zail ikusten nuen eta nahikoa sorpresa izan dela esan behar dut. baina tira, nitaz ere akordatu dira eta ilusio handia dut profesionaletan aritzeko.

Nola eman duzu saltoa?

kontua bidea zabaltzen joatea da. pilotan jokatzeko umetan hasi nintzen, eta gerora, hainbat txapelketatan parte hartu izan dut, tartean baita munduko pilota

txapelketak ere. Honekin gutziarekin, han eta hemn zure izena entzutea lortzen duzu eta hau garrantzitsua da.

Noiz izango da debuta?

Noiz izango den ez dakit, baina, komentatu didate debuteko partida Eibarko Astelehena pilotalekuan izango dela. Pertsonalki frontoi hau oso dut gustukoa.

Norekin jokatzeko gustatuko lizazizuke?

Ui, gustatu Titinekin edo! baina, beste edozeineaz joku ona erakutsita ere konformatzen naiz.

Eta San Pedrotan Eskoriatzako frontoia jendez lepo dagoela partida jokatzeko, zer suposatuko luke Unaiantzat?

Hori zerbait handia izango litzaizke, gainera, udalak badu asmoa, izendun pilotari profesionalak ekarri eta San Pedrotarako horrelako partida garrantzitsu bat antolatuzkoa. Jaialdi honetan, bi partidu jokatzeko dira eta bigarren horretan behin asmoak konfirmatu ezkerri, Zabala eta biok jokatzeko genuke elkarrekin.

Ze iritzi duzu Arrasaten egin berri den Uarkape pilotalekuari buruz?

Ez naiz egon bertan, baina, telebistan ikusi dut eta oso frontoi

polita ematen du.

Gaur egun profesionaletan bi eskoriatzar izateak herriko gazteentzat motibazioa al da?

Izan beharko luke motibazio bat, baina, beste kirol batzuk, futbola bezalako talde kirolek, gazteei erakarpen gehiago sortzen die eta ez da erreza pilotarako guk daukagun zaletasuna oraingo gaztetxoek aurkitzea. Dena den, telebistan botatzen hasi diren horrekin ematen du kirol hau piztu egin dela. nik herriko gazteak animatuko nituzke, ze oso kirol polita da eta geurea den kirola gainera.

Pilotari gazteak maila ona ematen ari dira txapelketatan, sorpresarik eman dezakete banan-banako txapelketa honetan?

Nik faborito, Beloki, Eugi eta Elkoro ditut, baina, Arrasaten larunbatean Olaizola Iik Zearraren aurka jokatzeko dira eta agian hemendik sorpresarenbat eman dezakete. hau interesgarria izango litzeke.

Debuteko partidua noiz jokatzeko duzun abisatuko duzu, ezta?

Bai, bai. Gainera, edozein partidutan herriko jendea ikustera joatea asko eskertzen dugu eta horrelako batean zer esanik ez.



DORLETA
 Aranburuzabala, 22 -bajo
 Tfnoa.: 71 51 20

Txalaparta
Jatetxea
 Tel.- 943- 71 50 46

AZKOAGA
 ESTANKOA
 Zure zerbitzura

RELE
Faustino Legazpia
 Tel. 943 71 40 72

Garapen komunitariorako esperientzien trukaketa

Mundukide Fundazioaren garapen komunitariorako esperientzien trukaketa programa barruan, latinoamerikatik etorritako bederatz lagun gure artean izan ditugu azken hilabete honetan. Bailerako esperientzia kooperatiboa ezagutu eta beraien herrietako errealitatearen berri ematea du helburu esperientzia trukaketa programa honek.

Martxoaren haseran etorri ziren Eskoriatzara eta hilabete amaierararte gurean izan ditugu bederatz bekadun hauek. Herralde ezberdinetatik etorri dira; bi Nikaragutatik, bi Chiapas-etik, bi Guatemalatik, bat Colombiatik, bat Peru-tik eta beste bat Ecuadorretik. Beraien egunerokotasuna utzi eta, Hego nahiz Ertamerikako herrien egoerari buruz hitz egin digute, aldi berean

Euskal Herrian izan dugun garapen kooperatiboa ezagutu dute. Industri nahiz nekazal Kooperatiba, ikastola eta kultur erakunde ezberdinen funtzionamendua bertatik bertara ikusi ahal izan dute.

Goizak apendizai teorikoa lantzen eman dituzte, arratsaldez aldiz, lantegi ezberdinekin bilerak izan dituzte, ideia eta esperientziak elkar trukatzeko.



Eskoriatzako Udalak egindako harrera egunean

Mundukide Fundazioa, elkarlaguntzarako bide berriak irekitzen.

Joan den irailean sortu zen Mundukide, eta ordudanik lanean dihardu helburu zehatz eta argiekin. Hiru helburu nagusi ditu Mundukidek:

- Alde batetik, inguruko biztanlegoa eta batez ere langilegoa, Ipar eta Hegoaren artean dagoen erlazio sozio-ekonomiko injustoaz ohartaraztea.
- Bigarrenik, lan munduaren (langile eta enpresariak) konpromezua lortzea, Hirugarren Munduaren garapenean kooperatu eta partehartzeko. Abiapuntu bezala hartuz, gure ongizate gizartea beraien kontura eraiki dugula.
- Fundazioa atxekitutako enpresetatik eta beste Instituziotatik diru ekarpenak lortzea, kooperazio lana modu eraginkor batean egin dadin.

Helburu hauek lortzeko hiru bide ezberdinetatik lan egingo da:

1. Hirugarren Munduko eskualdeetan garapen sozioekonomiko duin bat lortzea, hezkuntza alimentazio eta osasun zerbitzuari bultzada emanez.

2. Enpresak sortzeko giza baliabide egokiak dituzten Hirugarren Munduko eskualdeetan, kooperatibak edo beste motatako enpresak sortzen/garitzen laguntzea.

3. Esperientzia trukaketa, Hirugarren Munduan lan komunitarioetan ohitura duten komunita-



MURU
AUTO KONPONKETAK

Autos Muru S.L.
Araba Etorbidea, 3
20500 ARRASATE
Tfnoa. 943 792716



HONDA
motorrak

Motorren konponketa eta salmenta

ZERBITZU
OFIZIALA:





YAMAHA



PIAGGIO



SUZUKI



PEUGEOT



KAWASAKI

Pub ALDATZ

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

teen eta gure errealitate kooperati-
boaren artean. Bi aldetatik egingo
diren bisita eta egonaldien bitartez.

Lehen elkartruke esperientzia

Martxoaren haseran etorri zitza-
izkigun latinoamerikako herrialde
ezberdinetatik eta hilabete amaier-
ararte gure artean izan ditugu.
Huhezi Fakultateak eta
Eskoriatzako Udalak harrera beroa
egin zien hilabete haseran eta
dagoeneko Eugenia, Pablo, M^a
Cruz, David, Francisco, Gloria,
Merit eta Edith-i agur esateko ordua
iritsi zaigu Hitzaldi ezberdinetan
beraien esperientziak kontatu
dizkigute herritarroi nahiz inguruko
ikastola eta unibertsitate ikasleei.
Eskoriatzan izandako hitzaldietan
Merit eta Eugeniak "Emakumearen
egoera Chiapas eta Guatemalan"
aztertu zuten eta Francisco eta Pablo
eta Gloriak, beraien herrialdeen
berri eman ziguten beste hitzaldi
batetan. Beste herrialdeetako erreali-
tateak beraien ahotik entzunda, gure
informazio ezaz ohartu egiten gara,
ondo datorzkigu beraz, guri eta
beraiei mota honetako esperientzi-
ak.



Eugenia eta Meritek ertameriketako emakumearen egoera azaldu ziguten

Beraiek Debagoienako nahiz
Euskal Herriko esperientzia kooper-
atiboak ikusi ahal izan dituzte beste
gauza askoren artean. Lehen astean
kooperatibei buruzko kurtso bat jaso
zuten, kooperatibei buruzko infor-
mazio zabala jasoaz. Bigarren
astean inguruko eskola batzuei bisita
egin zieten, beraien funtziona-
mendua ikusteko eta beraien esperi-
entzietekin alderatzeko. Aste honetan
bertan Arrasateko Saiolan ikusi
zuten, enpresa berrien sorlekua iku-
siaz. Hurrengo astean Kooperatiba

industrial handiak ikusi dituzte,
Fagor, Irizar, eta horrelakoak.

Laugarren astean, beraiei gehia-
go interesatzen zaizkien nekazal
kooperatibak bisitatu zituzten.
EHNE sindikatokoekin ere bildu
ziren.

Beraz, denbora gutxian gauza
asko ikusi dituztela esan genezake.
Esperientzia aberasgarri eta neka-
garria izan da dudarik gabe, gainera,
hitzaldiak ematen jardun dute
etengabean.

Hurrengo urteetarako bidea zabalik

Esperientzia komunitariaren trans-
misio programa honen lehen urrat-
sak izan dira hauek eta etorkizunean
ziur gaude horrelakoak errepikatuko
direla. HUHEZIKo irakasle nahiz
ikasle batzuk hurrengo urtean
Hegoameriketara joateko aukera
izango dute ziurrenik.

Orokorrean balorazio positiboa
egin dute antolatzaileek, baina
orain, hurrengo urtean zer hobetu
daitekeen ikusi beharko da.



Udaletxeko kontzejupean egin zieten aurrekuari begira

egizabal oinetakoak

ARRASATE - Olarte, 14 - Tf. 943 79 66 01

BERGARA - Bidekurutzeta, 13 - Tf. 943 76 12 28

LIZARRALDE

KIROLAK

Foruen Plaza, 1-2. San Andres - Arrasate - Tf. 943 79 91 47

Olakua, 16 - Oñati - Tf. 943 78 29 86

Maiden Nafarrate: "Heziketa izateak asko lagunduko lieke dituzten arazoetan".

Irrifarre zabala ezpainetan duela agurtu gaitu Maidenrek. Puntualitatea, ezin esan gure neska motzaren bertutea denik, baina, oraingoan itxaroten egon izanari ezin garrantzirik eman, garrantzitsuak Maidenrek Hondurasetik

bueltan ekarri dizkigun kontu pila izan baitira. Kontu asko kontatu dizkigu bai, solaskide atsegina baita Maiden, hitzegiteko eta espresatzeko erretasun handia duena eta horrela adi-adi berak kontatua lerro hauetan jaso dugu:

Bi hilabete eman dituzte Maide-reek eta Naiarak, bere ikas-kideak, Hondurasen. Maiden ma-gisteritzako ikasketei amaiera emate-ko praktikak egiten aritu da bertan eta, pozik bueltatu zaigu mundu zabaleko txoko ezkutu hori ezagutzeko aukera izan duelako: <<erabat aberastuta bueltatu naiz handik, inor aberatsa baldin bada, hori ezagutu ditudan indigenak dira, eurek deus gutxi izan arren, daukaten apurra besteei emateko borondate ona beti erakusten baitute eta hori aberastasu handia da>>.

Esperientzia aberasgarri hori, Copan Ruinas izeneko herritik gertu zegoen komunitate batean, San Franciscan, bizi izan du. Komunitate indigena honetan, nagusiak alfabetatzeko klaseak ematen aritu da eta behar horretan konturatu da, heziketak zenbaterainoko garrantzia duen: <<Pobrezia goseak bizitzea baino zerbait gehiago dela ikusi dut. Indigena horiek, kultura eta heziketaz ere pobreak dira eta hau oztopo handia da euren eguneroko arazoak konpontzeko eta baita komunitatearen garapenerako>>.

La Motañako zentsua.

San Franciscora joan aurretik, astebete eman zuten La Motañan,

Maiden oso umezalea izanik, gustura aritzen zen goizetan hauekin jolasean. Nagusien-dako klaseak arratsaldean ematen zituen.



mendietan zegoen herriska batean, hango datuak bildu eta "zentsu" modukoa egiten; adina, osasuna, seme-alaba kopurua, biztanle kopurua, etxeen egoera... gauza oso oinarrikoak galdetu arren, zentzuzko zentsu bat egitea kostatu egin zitzaientza aitortu digu, ordea: <<Gure etxeko aitonari, esaterako, 94 urte botatzen zizkioten eta guk hori ezinezkoa zela pentsatuta erregistatuta zeuden "cedulan" begiratu genuen eta, noski, aitona gazteagoa zela ikusi genuen!. A ze komeriak ibili genituen aitonari gazteagoa zela esateko; "¡Aguelito que es usted diez años más joven está como un cipote, como un chavalín!">>. Beste ho-rrenbeste gertatu zitzairen, ordea, ume kopurua eta hauen adina galdetzean. Ume

asko dituztenez, batorenbat aipatzea ahaztu egiten zuten eta adina, berriz, gutxi gora behera kalkulatzeko zuten: <<apúntame a Gregorio unos catorce años>> eta horrelakoak. Taxuzko zentsu bat egi-ten ari ote ziren galdetzen zion Maidenrek orduan bere buruari.

Heziketaren garrantzia

La Motañako egonaldia eta gero San Frantziscora abiatu ziren ohian itxian barrena. Euripean egin zuten bidea eta komunitatera iristerako lo egiteko koltxoiak, motxilak eta eurak ere mela-mela egin ziren. Gainera, komunitatean ustekabean hartu zuten euren bisita, ez baitziztuzten hain azkar espero. Horregatik, gau hura elizpean pasa behar izan zuten.

Hurrengo goizean bilera egin zuten, nagusiak alfabetatzeko eman behar zituzten klaseetara etortzeko



Haurrek ez dute adolestentziarik ezagutzen. umetatik etxean laguntzen hasten dira: Karlinek potzuko ura darama pitxarrean etxera. Gregorio, berriz, txintxo-txintxo neba txikia zaintzen.

Emakumeek egun osoa sukaldean ematen dute ogia torteatzen.



zenbat jende interesaturik zegoen jakiteko. Jendea emozionatuta somatu zuen Mainerrek, gustura hartu zuten euren eskaintza eta, klaseetan ere edozein zalantzari buruz galde-tzen zietela aipatu digu: <<Gauza oina-rrizkoenak irakasten ibili, konturatu naiz eurentzat sekulako balioa daukatela: galdera ikur-entonazioa, firmak botatzen ikastea, gutunak idazten ikastea... Gordeta daukat guztien artean idatzi



direnik. Hango egoera kaxkarraren berri ondo informatuta joan arren, Mainerren ustez eta, ikusitakoaren arabera, egoera asko txartu da. Lurjabeekin ez omen dira konpontzen; hauek jartzen dizkieten baldintza gogorretan lan egin beharra daukate eta miseria gorritik atera ezinean segitzen dute. <<Komunitate pobre hauena aprobetxatu egiten dira. Lurjabe, agintari eta abarrei, interesatu egiten zaie hango miseriarekin jarraitzea eta gu bezalakoak gaizki ikusten dituzte, bazterrak nahastera joaten omen gara. Komunitate indigenetan heziketa sartzea oso gaizki ikusita dago jende horien artean. Horregatik, zuhurtasunez jokatu behar izan dugu askotan>>.

Mainerrek azaldu digunez, berta-koak ere jabetzen dira miseri gorrian bizi direla, baina, ez dute

jakiten zer egin. Horregatik, heziketaz arduratzeaz gain, etengabe saiatu dira bizi zuten egoera ilun hortan argirik ikusterik bazegoela sinistarazten eta animatzen: <<Behin, hemen kalefazorik ba ote geneukan galdetu zidaten egon nintzen etxeok. Nik, berriz, animatzeko zera erantzun nien: "si pero vosiotos teneis suerte por que aquello es artificial y vosotros teneis fuego que os da luz, calor y, además, podeis preparar la comida.¡Esto es una maravilla!". Eurena ere baloratzaren jakitea ere garrantzitsua da>>.

Azken egunean, zeharo hunkitu zen Maider eurentzat antolatu zuten despedida jaian, zuten apurrarekin sekulako jaia egin baitzieten. Buelta-tu zela egun gutxi pasa diren arren egunero oroitzen da Hondurasen *chorti* etniakoekin bizitako momentu horiek guztietaz eta, argi dauka hu-rrengo aukera izaten duenean berriz joango dela bera hain gozo tratatu duten herrialde horretara ahal duen edozertan laguntzera.

<<kultura eta heziketaz ere pobreak dira eta hau oztopo handia da euren eguneroko arazoak konpontzeko>>

zidaten gutun bat, ikasitako guztia txukun-txukun ipini zidaten, firma eta guzti gainera!>>.

Dena den, eurak hain modu abegikorrean hartu arren, ezin esan San Francisco eta inguruetako komunitateak une xamurrak bizitzen ari

Espero zenituen azken hauteskundeetako emaitzak?



NEREA DIAZ DE GEREÑU

Gogor xamarra izan da. Gertatu dena da abstentzioa del eta ez dela, jendeak PNV ala PP bozkatu duela



IRAZKUNDE DIAZ DE GEREÑU

Gutxi gora behera bai. Ez horrenbesterako baina bai. PPK ez dauka indar askoko aurkakorik eta horregatik irabazi dau gehixau.



XABIER GOMEZ

Espero nituen emaitzak eta nik uste det emaitz honen ostian politidari guztiak gogoeta sakon bat egin beharko luketela, gehien bat politiko abertzaliak, orain arte beraien artien egon zan batasun hori irtenbide ona izan zan eta nik uste det batasun horretara itzuli beharko luketela.



KARMELE IGLESIAS

Sorpresa izan da. Partidu bat abstenitu izanak beste bati eman dizkio botoak. Hori izan da kontua.



MERTXE ARMENDARIZ

Euskadi mailan bai. España mailan ez. Uste nuen sozialistak gehixau egingo zutela eta ez zutela edukiko bestiek maioria, hori seguru.



XABIER ESNAL

Espero nuen. Nahiz eta jende askok txarto hartu abstentzioa defenditzen genuenok irabazi dugula uste dut.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

GAIA

Telefono mugikorren antenak ugaritzen ari dira azkenaldi honetan

1436an Gutenbergek inprenta asmatu zuenean garaiko zientzilariek (Santama Eliza buru) demonioaren inbentotzat jo zuten. Gizartearentzat tramankulo gaiztoagorik asmatu ezin zitekeelakoan.

1830ean Ingalaterran lehenengo tren martxan jarri zenean bizkor asko argitaratu zuten British Medical&Ciencias Journalen zein inbento gaizto eta traketsa zen gizartearentzat: gizakien begiak ez omen zeuden eginak orduko 60 kilometroko abiaduran irudiak jasotzeko: nerbio optikoak ezin omen zituen irudi horiek burmuinera igorri garunen hondamendia ekarri barik.


Ume sasoiaren, telebista heldu zenean -bagaude oraindik mundua telebista barik ezagutu dugunok-, zenbat eta zenbat aldiz entzun ote genuen telebista txarra zela. Eta azken urteotan ordenadoreei buruz botatakoak?

Antza denez badugu gizakiok nolabaiteko sen atzerakoia, berrikuntza guztien aurrean jarrera ezkorra hartzerantz bultzatzen gaituena. Historiak erakusten digun bezala -salbuespenak salbuespen inolako arrazoi barik. Eta arrazoirik ezear berrikuntzei aurre egiteko aitzakiak erabili izan dira, garaiaren araberakoak, eta itxura guzti-etakoak: erligioa(k), zientzia, natura, ingurugiroa.

Honela bada ez ditzagun telefono mugikorrek eta estaldura ematen dieten antenak, beste barik, gaitz guztien iturritzat jo, ezetz esateko jaiok bagina lez. Kalte latzagoak dakarzkigu gure "kontsumomenpekotasunerako" joerak, abantailak oro irizpide eta neurririk gabe erabiltzera garamatzanak.

Ez dezagun bihur ekologia inkisizio berria.

Oharra: Goiko dan-danak aitzakiak besterik ez dira, antenei bai esateko arrazoi bakarra dut eta poltsan: telefonotxoak.



jone eta jojo

Entzuna dut nonbait telefonia mugikorrek darabiltzan antenak kaltegarriak direla osasunarentzat, eta horregatik jarri behar direla leku populatuetatik gutxieneko distantzia batera. Baina, kontrakoa ere entzun dut, edo gutxiarik frogatubako zerbait baino ez dela, berriketa hutsa, azken batean. Dena dela, honetaz gehiago dakielako ustean dabilenik bada ale honetan bertan, eta honi egin beharko diozue kasu zerbait jakin gura izanez gero.

Zer esango dut, ba, nik, ilunkeran antenei faroltxo gorria isiotzen zaienean, erakarpen misteriotsu horrek politikariak dakarzkidala burura, ilaje guztietakoak. Izan ere, airean zintzilik ematen duen ipurtargitxoak, gure borondatea igarri, deskodetu eta erabiltzen duten gizon-emakumetxoak bezalakoa da, gezurtia, gezurra hutsa, gezur borobila emaitzen aurretik agintzerakoan eta ostean interpretazioak egitean.

Izan ere, telefonia mugikorrarena publizitatearen erakustaldi bortitzenetakoa dugu. Beti entzun dut publizitateak lehenik beharra sortu, eta ondoren, induzitutako behar hori asetuko duen gailua edo dena delakoa eskaintzen digula, egundoko mesedea eginaz bezala. Ba, "urrutifonotxoekin" horrelako zerbait gertatu da: premiarik ez izatetik, mundu guztiak trastetxoak belarritik zintzilik daramala ikusteraino amen batean igaro gara. Eta horrek sutu nau, berriz ere tontotzat hartu eta ergel totalak garela erakutsi dugulako, oraingoan, gainera, ergel total masiboak, giza espeziearen zoritxarrerako eta Telefónica, Airtel, Euskaltel eta Ez-dakit-nor-telen kontuen mesederako. Premiazko egoera batean zaudenean koberturarik ez dagoela konturatzeko, jakina! Antenarik ez, mesedez!

Aurrerantzean Dema gogoak atal berri honetan, gai desberdinen inguruan iritzi kontrajarriak azalduko dituzte bi kolaboratzaile berri hauek. Iritziak ez dute zertan idazten duenak pentsatzen duenarekin bat etorri, hori dela eta ezizenez sinatuta datoz. Hala ere norbaitek beraien izena jakin nahi balu ez legoke inongo arazorik.

TXARTELAK

- Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera izango duzu hemendik aurrera Arrasateko Gazte Bulegoan.

GAZTEAK LANKIDETZAN

- Herri erakundeek eta GKEek Hirugarren Munduan aurrera daramatzaten lankidetzaren programetan parte hartzeko aukera daukazu, 20 urte baino gehiago eta 31 baino gutxiago duzuenek. Udako hilabeteetan izango dira egonaldiak. Epea: apirilak 4.

UDAKO PROGRAMAK

- **UDALEKUAK:** Diputazioak antolatutako Udalekuetan parte hartzeko aukera, 7-13 urte bitartekoek, 7 eta 14 eguneko egonaldiak egiteko aukera, Barria, Gorliz, Hondarribia, Biana, Lauaxeta, Orrio eta beste hainbat lekutan. Ingeles egonaldiak eta ur ekintzak burutzeko aukera ere egongo da. Izen emate epea: martxoak 27tik apirilaren 5 arte.

- **UDALEKUAK:** Euskal Udalekuetan parte hartzeko aukera, Abaigar, Bernedo, Goñi eta Urdiritzen, uztaile eta abuztuan ekintzak burutzeko aukera. Epea: apirilak 7.

- **UDALEKUAK 14-17:** Cáceres, A Coruña, Valentzia, Nafarroa... trukaketak burutzeko aukera. Ingeles ikastaroak ere egongo dira, Segurako Aterpetxean. Epea: apirilak 18tik maiatzaren 10 arte.

DIRULAGUNTZAK

- **EUSTATEk,** estatistikaren alorrean heziketa eta ikerketa lanak burutzeko dirulaguntzak. Epea: apirilak 23.

- "Censolar" en eskutik, eguzki energia instalatzaile titulua ateratzeko dirulaguntzak. Epea: apirilak 30.

- "La Caixa" ren eskutik, Frantzia, Britainia Handia, Alemania, EEBB, Canada edo Japonen postgradu ikasketak egiteko dirulaguntzak. Epe ezberdinak.

LEHIAKETAK

- Basauriko Euskarabila Elkarteak antolatuta, ipuin erotikoen 5. Lehiaketa. Euskaraz idatzitako lanak, 2 eta 6 orrialde bitartean. Epea: apirilak 17.
- Zumarragako Udalak, bertako festak iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du. Epea: maiatzak 12.
- "Ignazio Aldekoa" ipuin lehiaketa antolatu du Arabako Diputazioak, euskaraz edo gaztelaniaz, 12-25 orrialde bitarteko luzeeran idatziak. Epea: irailak 8.

BASOGINTZA AZOKA URKULUN

Apirilaren 1ean, goizez

Hainbat sailtan banatuko da azoka:

Atsedena, Zaintza, Produkzioa, Etxe komertzialak, Artisau erakusketa, Herri Kirolak, Bertsolariak...

Goiz ederra pasatzeko modukoa

GARIZUMA: JUBILEOA 2000. URTEAN

Apirilak 1 eta 2: misiolarien etorrera eta euren esperientzien azalpena

Apirilak 3,4,5,6: hitzaldi kateketikoen astea.

Apirilak 7: adiskidetzaren sakramentuaren ospakizuna

Apirilak 8,9: misioaren bukaera

Apirilak 15: erromesaldia Arantzazura

Apirilak 16: erramuen bedeinkapena

JAIOTZAK

- Lide Crespo Zuazua 00/2/23
- Nagore Gruzeta Elkorobarrutia 00/2/22
- Lorea Lapuente Galdos 00/3/9
- Oscar Blazquez Lopez 00/3/16
- Leire Rodriguez Sanchez 00/3/21

EZKONTZAK

- Kepa Markaide eta Miren Gazteiz 00/3/11



ESKORIATZA

- Udaletxea 943-714407
- Udal Bulegoak 943-714532
- Udaltzaingoa 943-714407
- Euskaltegia 943-792168
- Kultur-Etxea 943-714688
- Gizarte-Laguntzailea ... 943-714688
- Kiroletxea 943-715328
- Liburutegia 943-714688
- Luis Eceiza 943-714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
- Almen 943-714964
- Museo-Eskola 943-714688
- Ze Barri? 943-715434**
- Talde Antimilitarista ... 943-714537
- Irakasle Eskola 943-714157
- Osakidetza 943-714452
- Telesko 943-714917
- Taxia 943-714059

BESTELAKOAK

- Eskualde-Ospital (Arrasate) ... 943-795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 943-765576
- Ertzaintza (Arrasate) ... 943-797199
- Suhiltzaileak (Oñati) ... 943-792800
- Renfe (Zumarraga) 943-721515
- Renfe (Gasteiz) 945 232030
- Pesa (Arrasate) 902 101210
- Larrialdiak (Arrasate)... 943 771043
- SOS Deiak 112



1972. urteko ihauterietako argazkia dugu honako hau. Ikastolako 3 mutiko hauek, Asier Biteri (erdian), Ruben Beitia (soineko koloredunarekin) eta Aitor Urrutia (gorriduna) behintzat ezagutu ditugu.

ZE BARRI? Urlatik Landetara-ko GUTUNEN ARAUDIA

Ze Barri? Urlatik-Landetara, aldizkarian edozein gutun argitaratu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Anonimoak eta gaitzizenez edo inisialez bidalitakoak ez dira argitaratuko.
- Gutuna bidali edo ekartzen duenak, berarekin kontaktuan jartzeko modua adierazi beharko du.
- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu.
- Egilea talde edo erakunde bat denean, talde izena onartuko da.
- Gutun iraingarririk ez da argitaratuko.
- Testua argazkiekin lagunduta ere etor daiteke.
- Gehienez jota 30 lerroko onartuko dira. Hortik gorakoa balitz laburtzeko eskubidea izango genuke. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara. Ez da lekurik gordeko. Erredakziora hel-dutako ordenean kaleratuko dira.

“auto fidagarri, seguru, dinamiko,
berritzaile, zabal, jostagarri eta norta-
suneko bat nahi duzu.
eta aurkitu duzula uste duzunean,
focus agertzen da.

Zeren eta zu zerbait
gehiagoren bila baitzabiltza.

“Erabiltzaile eta
kontsumitzaileen
Erakundeak (OCU),
“crash test” delakoaren bitartez
egindako ikerketaren arabera,
Ford Focus-ek puntuaziorik altuena
lortu du segurtasunean,
beste 5 modelorekin batera.”

AUTOPISTA aldizkariko
2.064. zenbakian argitaratua

Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
Audi A3 ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
Suzuki baleno **

1.975.000 pta-tik aurrera
fordfocus TDdi berria



“Plan Prever” eta kanpainak sartuta



MUGARRI



DEBA GARAICO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54